

LUMA BERRIEN AZTARNAK

JOXE BEGIRISTAIN

Joxe Begiristain Moz

Jo eta bertan garbituko duela erabakita esnatu da izerdi patsetan. Kostatu zaio bere onera etortzea, nola arraio den posible, garai hartako kontuak ibili izana buruan jira-bira ametsetan. Nahita ere idazten asmatuko ez lukeen detaile txikienez bizi izan du amesgaiztoa. Gainera, oso denbora laburrean izan da guztia: komuneko buelta egin eta artean ordubete behinik lo segi zezakeela pentsatuz oheratu da, elizako kanpaiek goizeko zortziak jotzen zituzten bitartean, eta, zortziak eta laurden dira izututa ohetik jaiki denean.

Sukaldera joan, eta dagoeneko gosalduta dagoen Ireneri egun ona eman dio muxu batez.

– Zertara jaiki haiz horren goiz?
– Ez zakinat... Amesgaiztoa izan dinat.
– Gosaria jarriko diat.
– Ez berotu oraindik. Dutzatza noan.
– Dutzatza orain? Ez al ginen mendira joatekoak?!
– Bai, bai... Baina dutxa bero baten premia dinat. Berehala naun.

Inoizko ur beroenaren astinduak ere ez dio baretu egonezina. Beldur-dardaraz antzeman du gorputza, eta luze jo dio lehorteak.

Gosaldu eta balkoira atera da zigarroa piztera. Halako batean, telefonoak hautsi dio igande goizeko berzko isiltasuna.

– Bai, esan...
– ...

Minutu bat edo aritu dira hizketan. Gehiago ez. Irene galdezka joan zaio:

– Lagunen bat izango zuan...
– Ez, kuadrillako bat.

Institutura eramaten dituen autobus-gidariak, motorren dardarizoko soinean eragiten duen kilima ez-deusa baino ohikoagoa den «iepa» batez agurtu denean jabetu da, geroak zain egon diren artean ere, inork ez duela bere izenez agurtu. Inoiz horretan pentsatzen jarri gabea zen noski, baina, bat-batean etorri zaio, ez duela bere izena gogoan! Berari ere lekuz kanpoko iruditu zaio «egun on, Leire» edo «aupa, Inazio» edo «lanak egin al dituk, Bixen?» galdezka ze-

harkatu izana autobusa, aurretik atzeraino jendea bere izenez agurtuz. Eginahalak egin ditu, bai autobusean bertan, bai institutuaren atarian eta bai gelan ikasgaiarekin bete-betean ari zirenean ere, inon diren guztiei hitza eman eta norbaitek bere izenez agurtuko ote zuen esperantzaz. Baina, inork ez dio bere izenez deitu. Areago, iruditu zaio, sekula baino kasu gutxiago egin diola jendeak.

Hala, ikasgai batetik besterako tartearen aitzakian komunera doanarena eginez gelatik atera denean, eraikintzarrean inor ez balego bezalako hutsunea eta isiltasuna baizik ez ditu nabaritu. Zein ikusiko, nora-ezean eskaileretan gora eta behera ibili ondoren, institutua utzi eta kale bete jende zebilen hirian murgildu da, begirada ezagunen bat topatu nahian: bere izenez diosala egingo dion norbaiten bila. Ohikoak zituen denda, taberna eta bestelakoetan izan da aurrez aurrekoek bere izenez agurtuko dutelakoan, baina ezta batek berak ere.

Parkera sartu eta itzul-inguruka, bere egunerokoan ezagutzen dituen guztien aurpegiak banan-banan parera batera proiektatuko balizkiote bezala ikusi ditu. Bat-batean guztien izenak ahoakatu ditu bata bestearen atzetik, inongo zailtasunik gabe. Baina bere izena ez du gogoan! Badaki nor den, bere bizitza osoa irudikatu du, ustez heriotza aurreko azken unean gertatu ohi omen den antzera, baina ez du bere izenaren arrastorik txikiena ere...

Institutura itzuli da. Oraingoan, korridore bete jende, komunera sartu da herio batean. Ur-txorrota ireki eta konketara makurtuta aurpegia bustitzen ari zela, bere atzean dauden komunontzietako batean ura hustu dute. Krisketa hotsez atea ireki eta atzetik atera zaion kuadrillako Sergiok eskuaz bizkarrean joz, «non ostia sartu haiz, Moz?» esan dio. Ahotsez ezagutzearekin batera ikusi du konketa gaineko ispiluan, eta eskuineko esku bustiarekin txamarran ezkutuan zerman ehizako ganibeta atera, eta ustez bihotza behar lukeen tokian sartu eta atera, sartu eta atera erabili dio tramankulua bularrean Sergiori. Ezkerreko eskuaz lepo-zintzurretik bultzaka atzeraka eramanez, utzi berria zuen komuneraino botaz, behin eta berriz ganibeta bularrean sartu eta ateraz.

Hura han odolusten utzita, ordura arteko urduritasunaren laurdenik gabe, komunetik alde egin du, Sergioren odol-ziprztinak baino gehiago direnekin arropak gorri blai eginda. Bera komunetik ateratzea eta



Irudia:
**Kristina
Fernandez**

Sergioren azken garrasiek arrapaladan jendea bertaratzea bat izan dira.

Zorabiatuta korridorean erori eta ahoz gora, oraingoan, parkean ez bezala, jende-ilara beldurgarria du bere buru gainean: institutuko ikaskide izutuen begiradak goitik behera, aurpegiak bata bestearen atzetik noria baten antzera bueltaka dabilzkiola. Guztiak ezagunak, inoren izenak gogoan ez baditu ere.

Joxe Begiristain Aizpurua

Ataunen jaio nintzen 1961ean. CAFen aritzen naiz Euskara Teknikari lanetan. Lanorduetatik kanpo betiko afizio izan dut liburuak irakurtzea. Orain, literatur testuak idazteko oinarritzko ezagutzak neureganatu nahian nabil Idazle Eskolan.

NOR DA

Nahitaez ospitaleren batean behar duen egoeran antzeman du bere burua, institutuko korridorekoa ez den sabaiari begira. Bi besoetara tutuak, botika usaina... Hizketan ari zaio Irene, presaka batean bezala:

– ... balkoian etzanda, konortea galduta geratu hintzen igande goizean eta koma sakonean ekarri hindugun, nik ezin hindudan esnatu eta! Lasai, bihotza; ondo hagoela esan zidatek oraintxe; berehala igoko hautela gela batera. Atzo hire lagunak direla esan zidatean bi izan zituan. Gaur, berriz, zuen kuadrillako Javi, Sergio eta Gregorio. Astearte arratsaldea duk, San Joan bezpera. Lasai, Martin...

– Martin... Martin Otamendi Gomez Agirre...
– Ondo al hago Martin?
– Bai, ondo nagon, Irene.